

FUNTSEZKO BAZKIDEAK

HORNITZAILEAK:

Gure aurpegi-ezagutza sistema sortzeko, zenbait makina behar izango ditugu. Horretarako, hornitzaileekin bi urteko akordio izango dugu eta akordio honen bidez enpresak makinak hornituko dizkigute. Makinaria horien bidez, produktuaren ekoizpena azkarragoa izango da eta, beraz, denbora berean aurpegi-ezagutza ate gehiago sortu ahal izango ditugu.

Funtsezko bazkideak:

Gaizka: Gure enpresako biltegiko zuzendaria izango da. Biltegian sartu eta ateratzen diren material guztiak arakatuko ditu, denak ondo egon daitezzen. Objektuen bat akastuna baldin bada, kendu egingo da biltegitik. Gainera, behar diren material guztiak eskatu eta jasoko ditu, eta produkzioarako behar direnak bidali egingo ditu.

Lander: Hura izango da gure enpresaren aurpegi publikoa. Eginkizun bat bezeroekin hitz egitea eta euren zalantzak argitzea da, honekin batera, bezeroak limurtuko ditu gure enpresara erakartzeko. Gainera, beste enpresekin hitz egingo du negozioak eta akordioak lortzeko.

Aitor: Marketing eta publizitate zuzendaria izango da. Gure produktua nola salduko den erabakiko duena. Publizitatea gehienbat sare sozialetan burutuko da, baina baita kalean ere. Gainera, gure sare sozialen 'community manager'-a izango da, hau da, sare sozialak eramango dituena.

Peio: Finantziario eta diruaren kudeaketa izango da bere ardura. Inbertsioak aztertu eta burutu eta enpresarentzat irabaziak lortzea izango da bere helburu nagusia. Baita ere, enpresaren gastuak komunikatuko dizkio taldekideei, honela talde osoak jakingo du zertan edo zertan ez gastatu dirua.